

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### **Onespena ematea ostalaritza sektorean diharduten langile autonomoentzako eta udalerriko familientzako laguntzen deialdiari eta oinarri arautzaileei, COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko**

Udal honek, 2021eko otsailaren 10ean egindako osoko bilkuran, onespena eman zien ostalaritza sektorean diharduten langile autonomoentzako eta udalerriko familientzako laguntzen deialdiari eta oinarri arautzaileei, COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko. Hartutako erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, gardentasun eta publizitate printzipioak bermatze aldera.

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako ezohiko egoeraren ondorioz, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua (azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez luzatu zen, eta hasiera batean 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatuko dela aurreikusten da) eta Euskadiko lehendakariaren hainbat dekretu onetsi dira, agintaritza eskudun delegatua den aldetik. Dekretu horien bidez, prebentzio neurri espezifikoak ezartzen dira osasun publikoaren arloan, alarma egoeraren adierazpenaren esparruan, eta ondorioz, urruntze fisikoa ezarri da eta pertsonen eta gure herrialdeko gizarte eta ekonomia jardueren mugikortasuna murriztu eta mugatu dira, COVID-19 hedatzea eragozten eta osasun publikoen sistema indartzen laguntzeko.

### OINARRI ARAUTZAILEAK

#### **1. artikulua. Laguntza deialdiaren helburua**

Deialdi honen xedea da Lantarongo udalerriko ostalaritza sektorean diharduten eta beren kontura lan egiten duten langileei edo autonomoei laguntza ekonomiko bereziak ematea, COVID-19aren hedapenari eusteko hartutako neurriek eragindako ondorio eta zailtasun ekonomikoak arintzeko.

Era berean, helburu berarekin, udalerriko familiei laguntzak ematea aurreikusten da, maskarak erosteko gastuetan lagunduz.

Lantarongo Udalak, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa den aldetik, eta COVID-19ari eusteko neurriek sektore horretan lan egiten duten norberaren konturako langileei edo autonomoei eragiten dizkieten ondorio ekonomikoak arintzeko eta horien aurrean jarduteko, nolabaiteko likidezia gehigarria eman nahi du laguntzen deialdi honekin, jasaten ari garen pandemiaren egoera ekonomiko neketsua ahal den neurrian arintzeko. Eta, era berean, familiei laguntzak emango dizkie maskarak erosteko. Deialdi honen azken helburua da udalerriko ekoizpen eta gizarte sareari eustea.

#### **2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura**

Laguntza hauek zuzenean emango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikulua eta 28. artikulua 2. eta 3. apartatuak aplikatuz, interes publikoko, ekonomikoko eta sozialeko arrazoiak daudelako.

#### **3. artikulua. Baliabide ekonomikoak**

Laguntza 2021eko ekitaldiko 439.471001 aurrekontu kredituari egotziko zaio: 20.000 euro. Aurrekontu aplikazio hori zabaldu ahal izango da eskaerak jaso eta guztizko zenbatekoa jakin ondoren.

#### 4. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte norberaren konturako langileek edo autonomoek (autonomo sozietarioak ere bai), baldin eta ostalaritzaren sektorean aritzen badira, turismo ostatuak barne, Lantarongo udalerrian jarduten badute, eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

– Lantarongo Udalaren jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea (ofizioz egiaztatuko da), edo, hala badagokio, sozietatearen izena edo lantokia Lantaronen dagoela egiaztatzea, udalerrian bere jarduera garatuz.

– Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea (2020ko urriaren 25eko alarma egoeraren aitorpenaren aurretik) eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

– Lantarongo Udalarekin zerga betebeharrak egunean izatea (ofizioz egiaztatuko da).

– Dirulaguntzen onuradun izateko inolako debekurik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 13ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Udalerriko familiei laguntzak ematea maskarak erosteko gastuetan laguntzeko: 2021eko urtarrilaren 1ean Lantarongo udalerrian erroldatuta egotea eta oraindik ere erroldatuta jarraitzea.

#### 5. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Zuzeneko laguntza bakarra emango zaio, 1.000,00 eurokoa, Lantarongo udalerrian ostalaritza sektorean jarduten duen langile autonomo bakoitzari, ostatu turistikoak barne.

Udalerrian erroldatutako pertsona bakoitzari 50 maskara kirurgiko dituen kutxa bat emango zaio.

#### 6. artikulua. Eskaerak, agiriak eta epea

1.1. Ostalaritzaren sektorean lan egiten duten norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako laguntza eskaerak eskabide eredu ofizialaren (eranskina) arabera izango dira, eta Lantarongo Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

1.2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Nortasuna egiaztatzeko agiria: NANA (fotokopia).

– Lantarongo Udalaren jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda ez badaude (ofizioz egiaztatuko da), sozietatearen izena edo lantokia Lantaronen dagoela eta jarduera udalerrian garatzen duela egiaztatu beharko da.

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiria. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela egiaztatzea (2020ko urriaren 25eko alarma egoeraren aitorpenaren aurretik).

– Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria.

Gainera, jardueraren jarraipenaren eta mantentzearen egiaztagiria aurkeztu beharko da ostalaritzarako ezarritako nahitaezko itxiera aldia amaitu eta hilabeteko epean, baita hura osorik irekitzeko baimena ere, behar bezala probatutako osasun arrazoietatik izan ezik, dagozkion bitartekoen bidez, jarduerari eusteko erantzukizunpeko adierazpena eta Udalaren egiaztapena barne.

2. Familientzako laguntzetarako, udal bulegoetara joatea bulego orduetan, haien nortasuna eta erroldatze baldintza betetzen dituztela egiaztatu ondoren, maskarak jasotzeko.

3. Dirulaguntza eskatzen dutenek ez badituzte betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, edo nahitaezko dokumentazioa aurkezten ez bada, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 71. artikuluan xedatutakoari jarraituz, interesdunei dei egingo zaie, 10 egun balioduneko epean huts egiteak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, beren eskaera atzera botako dela, aurretik dagokion ebazpena emanda, 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Eskaerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2021eko maiatzaren 30ean amaituko da. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetzeko onartuko, gaiaren mamian sartu gabe.

5. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da, espedientea garatzeko eskatzen den dokumentazio guztia udalean aurkezten den unetik kontatzen hasita. Epe hori igarota eskaerak ebazpen adierazirik ez badute, administrazio isiltasun bidez ezetsi direla ulertu ahal izango da.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinarazi behar zaie, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikulutik 46.enera aurreikusitakoaren arabera.

6. Lantarongo Udalak argitara emango ditu emandako laguntzak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 387/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **7. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko era**

Dirulaguntza eman ondoren, ordainketa bakarra egingo zaie onuradunei dirulaguntza ordaintzeko, haiek adierazi duten kontuan.

#### **8. artikulua. Prozedura ebaztea**

Udalaren Informazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta irizpena emango du, gero ebazpen proposamena emateko. Aurkeztutako eskaerak onartzeko edo ukatzeko ebazpena udalbatzak emango du.

#### **9. artikulua. Laguntzak justifikatzea**

1. Laguntzen pertsona onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2021eko abenduaren 31ra arte:

– Langile Autonomoen Araubide Berezian norberaren konturako langile gisa kotizatzeari dagozkion kuotak ordaindu izanaren egiaztagiria, alarma egoeraren aldiari eta egoera hori amaitu ondorengo hilabeteari dagozkienak.

Ordainketak egiaztatzeko, dagokion kargua jasotzen duen banku laburpenaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo finantza erakundeak emandako ziurtagiria, edo ordainketa hori justifikatzen duen beste edozein agiri.

2. Dirulaguntza ez bada aurreikusitako epeetan justifikatzen, emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da; beraz, aurreko atalean aurreikusitako justifikazio epeak igaro eta justifikaziorik egin ez bada, dagokion prozedura hasiko da jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharrak deklaratzeko, aldeztatik errekerimendua eginda.

#### **10. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Onuradunen betebeharrak dira, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 eta 46. artikuluetan ezarritakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Egiaztatzea baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin duela.

b) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari aldaketaren berri ematea.

c) Diruz lagundutako jardueren xedeari nabarmen eragiten dion edozein gorabeheraren berri ematea.

**11. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen helburu bereko beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

Udal dirulaguntza horien onuradunek jakin behar dute laguntza horiek bateraezinak izan daitezkeela beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen dituztenekin, eta, hala badagokio, onuragarritzat jotzen dutena aukeratu ahal izango dutela.

**12. artikulua. Arau haustek eta emandako dirulaguntzak itzultzea**

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. Tituluan jasoriko arauak eta haren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

**13. artikulua. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, 38/2003 Legean, haren arautegian eta Lantarongo Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean xedatutakoa hartuko da kontuan.

Komunioi, 2021eko otsailaren 16a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*

**ERANSKINA****EZOHIKO LAGUNTZEN ESKAERA, LANTARONGO UDALERRIKO  
OSTALARITZA SEKTOREAN DIHARDUTEN ETA BEREN KONTURA LAN  
EGITEN DUTEN LANGILEENTZAKO EDO AUTONOMOENTZAKO**

Eskatzailearen identifikazio datuak:

Izena: .....

Abizenak: .....

IFZ/NAN: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Harremanetarako telefonoa: .....

Helbide elektronikoa: .....

Lantarongo udalerrian ostalaritza sektorean egiten den jarduera ekonomikoa (EJZ epigrafea):  
.....  
.....

JARDUERAREN IZEN SOZIALA.....

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK:

Helbidea: Kalea: .....

Herria: .....

Harremanetarako telefonoa: .....

Helbide elektronikoa: .....

AURKEZTUTAKO AGIRIAK:

– Nortasuna egiaztatzeko agiria: NANA (fotokopia).

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiriak. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dagoela egiaztatzea (2020ko urriaren 25eko alarma egoeraren aitopenen aurretik).

– Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria.

Gainera, jardueraren jarraipenaren eta mantentzearen egiaztagiria aurkeztu beharko da ostalaritzarako ezarritako nahitaezko itxiera aldia amaitu eta hilabeteko epean, baita hura osorik irekitzeko baimena ere, behar bezala probatutako osasun arrazoiengatik izan ezik, dagozkion bitartekoen bidez, jarduerari eusteko erantzukizunpeko adierazpena eta Udalaren egiaztapena barne.

....., 2021eko .....-(a)ren .....(a).